



PRIETO ETXANO, Eunate

Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena auzoa z.g.
48940 Leioa
eunate.prieto@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2005), 14; 51-63]

Sarrera eguna: 2005.02.24
Onarpen eguna: 2005.09.21

Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa

(Musical teaching's legal framework)

Zan honen helburua, musika-irakaskuntzek espainiar Estatuan XIX eta XX. mendeetan izan duten bilakaera aztertzea da, hezkuntzari buruzko ordenamendu juridiko orokorretik at, eta musika-kontserbatorioetako ikasketa-plan bereziei jarraiki.

Giltza hitzak: Musika. Irakaskuntza. LOGSE.

El objetivo de este artículo es analizar la evolución que han tenido las enseñanzas musicales en el Estado español durante los siglos XIX y XX fuera del ordenamiento jurídico que regula el ámbito educativo general, ajustándose a los planes de estudio de los conservatorios de música.

Palabras Clave: Música. Enseñanza. LOGSE.

Ze but de cet article est d'analyser l'évolution des enseignements musicaux dans l'Etat espagnol durant les XIXème et XXème siècles en dehors de l'ordre juridique qui règle le domaine éducatif général, en s'adaptant aux plans d'étude des conservatoires de musique.

Mots Clés: Musique. Enseignement. LOGSE.



1. Sarrera. 2. Musika-irakaskuntzen bilakaera. 3. Musika-irakaskuntza orokorrak. 4. Musika-irakaskuntza ez arautua. 5. Oinarrizko mailako eta maila ertaineko araubide bereziko musika-irakaskuntzak. 6. Goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzak: ikuspegi orokorra, antolakuntza akademikoa eta ikasketetara sarbidea. 7. Goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzen tituluak eta lan-aukerak. 8. Musika-ikastetxe ofizialen erregimen juridikoa. 9. Musika-irakaskuntza ofizialetako irakasleen erregimen juridikoa. 10. Boloniako prozesuan zehar, zein da goi-mailako musika-irakaskuntzen tokia?

1. Sarrera

Musika arte bat da, soinuak eta denbora bat egiten dituena¹; aspaldidanik, garai eta herrialde guztien kulturari hertsiki lotuta egon den osagaia. Antzinako Greziara jo behar dugu musika kontzeptuaren jatorri etimologikoaren bila: hau da, *musiké* hitz grekora. Greziarrentzat, ordea, *musiké* ez zen *Euterpe* edo musikaren musa bakarrik. Ez, *Musiké*-k, musa edo arte guztiak biltzen zituen. Izan ere, azken batean, *musiké* artea zen greziarrentzat.

Ukaezina da gizakiok musikaz inguratuta bizi garela. Lehenik eta behin, izadiak berak sortzen dituen eta orkestra-zuzendari bat bailitzan gidatzen dituen soinuek inguratzen gaituzte. Honela, txoriño baten txirulirua, suge baten txistua, suaren txinparta, haizearen ufada, trumoiaren burrunba, haserre den itsasoaren marruma, basamortuko isiltasuna... *Euterpe*-ren adierazpenak baino ez dira. Eta gizakiok, ondoren, gure irudimenari eta sentimenduei jarraiki, soinu horiek guztiak antzeratu egin ohi ditugu pentagrama batean.

Musika, orobat, edonoren entzumenarentzat atsegingarria da; nor ez du zirrararik sentitu soil-soilik musika entzunez? Aldiz, entzumenaren maila gainditu eta entzuten ari garen musika horretan melodiarik, erritmorik, harmoniarik edo tinbrerik badela ere ohartzen garenean, orduan, musika adimenarentzat plazer estetiko bilakatuko zaigu. Jakina, ulermenaren mailara ez da norahi iristen, bakarrik gutxieneko heziketa estetiko bat jaso duena. Izan ere, *Euterpe* eskolatzea eta gizakiok

musikan hezteza ezinbestekoa izanen da entzuten dugun musika halaber ulertu ahal izateko.

PLATONen asmoetako bat, hain zuzen, musika eskolatzea eta ikastetxeetan irakastea izan zen. Honetara, proposatu zuen hezkuntza-ereduaren lehenengo maila, derrigorrean irakatsi beharreko bi diziplinek osatzen zuten: gimnasiak eta musikak, alegia. Gimnasiak gorputza suspertzea zuen helburu; musikak, berriz, arima apaltzea².

Esanak esan, XXI. mendearen atarian, PLATONek proposatu zuen hezkuntza-ereduak ez du oraino indarrik galdu, neurri batean bederen. Alderantziz, sendotua ageri zaigu. Frogatua baitago musikan hezteza funtsezkoa dela gizakion garapen pertsonalerako, sozialerako, kulturalerako, estetikorako...

Nolanahi ere, eskuartearen daukagun ikerketa-lan honen xedea ez da, kulturaren adierazpen gisa, musikak daukan balioan sakontzea, ez eta gizabanakoan zein gizartean musikak zer nolako eragina duen aztertzea ere. Izenburuan erreparatuz gero, agerikoa da musikaren irakaskuntza izanen dugula ikergai. Eta, hain zuzen, musika-irakaskuntzak, hertsiki, ikuspegi juridiko batetik aztertuko ditugula.

Ikuspegi metodologikotik bederatzi atalburutan banatzen den ikerketa-lan honen abiapuntua, beraz, musika-irakaskuntzek gaur egundaino izan duten bilakaeraren azterketa izanen da. Hau da, hezkuntza-sistema ezberdinetan administrazioak musika-irakaskuntzak nola antolatu dituen aztertzen saiatuko gara. Zalantza izpirik gabe, egungo musika-irakaskuntzen ikuspegitik bederen, hezkuntza-sistema horien artean garrantzitsuen LOGSEk finkatzen duena da. Bertan, bi irakaskuntza mota bereizten dira: araubide orokorrekoak eta araubide berezikoak, alegia. Hain zuzen ere, egun, araubide bereziko irakaskuntzat jotzen dira irakaskuntza artistikoak –musika, dantza, arte dramatikoak eta plastika arteak eta diseinua barne daudela–, hezkuntza-irakaskuntzak eta kirol-teknikariei dagozkienak. Bada, LOGSEk ezartzen duen hezkuntza-sistemak indarrean dirau, LOCEk gerora zenbait aldaketa eragingo duen arren. Horregatik, gainerako zortzi atalburuetan zehar aztertuko dugun musika-irakaskuntzen erregimen juridikoaren oinarria eta ardatza, LOGSEk ezartzen duen arauketa izango da³.

1. Ikus, besteak beste, *Enciclopedia Salvat de los grandes temas de la música*, Bartzelona: Salvat, 2004.

2. PLATONen aburuz, Estatuaren helburua ondokoa zen: hiritarrak justizian eta bertutean hezteza, zoriotsu izan zitezten. Bada, helburu hori lortzearen, bi mailatan taxututako hezkuntza-sistema bat proposatu zuen: lehenengo maila, derrigorrezkoa eta hiritar ororentzat komuna zena –20 urtera arte zirauena–; bigarrena, berriz, etorkizunean agintari izango zirenei bideratutakoa, eta matematikak nahiz dialektikak osatzen zutena –35 urtera arte zirauena–. Ikus *La República* (itzultzaileak: PABÓN S. DE URBINA, J.M. eta FERNÁNDEZ GALIANO, M.), Madril: Alianza, 2004.

3. Ikus 1/1990 Lege Organikoa, urriaren 3koa, hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorra arautzen duena (38-42 art.ak bereziki) –edo LOGSE– (urriaren 4ko BOEn argitara emana); eta, 10/2002 Lege Organikoa, abenduaren 23koa, hezkuntzaren kalitateari buruzkoa –edo LOCE– (abenduaren 24ko BOEn argitaratutakoa).

Horrela, bigarren atalburuan, musika-irakaskuntza orokorrak izango ditugu ikergai. Eta ikerketa honi ekinen diogu unibertsitate-mailakoa ez den hezkuntzatik abiatuz. Maila honetan, araubide orokorreko irakaskuntzak egituratzen diren hainbat etapatako *curriculum*-etan musika-irakaskuntza orokorrak nola taxutzen diren ikertuko dugu. Baita administrazioek hartutako neurri ugariak ere, etapa horietan araubide orokorreko irakaskuntzak eta araubide bereziko musika-irakaskuntzak uztartzeko. Azkenik, musika-irakaskuntzak unibertsitatean nola antolatzen diren aztertzekeo parada izango dugu.

Hirugarren atalburuan, berriz, musika-irakaskuntza ez arautuak izanen ditugu aztergai. Hau da, hezkuntza-sistematik at antolatzen diren musika-ikasketak. Bada, arautu gabeko musika-irakaskuntzen baitan, bi maila bereiztuko ditugu: bata, musika-eskolen bitartez abian jarriko dena; bestea, berriz, goi-mailako musika-heziketari dagokiona.

Laugarren atalburuan, LOGSEk hezkuntza-sistemaren osagai egiten dituen araubide bereziko musika-irakaskuntzetan edo musika-irakaskuntza arautuetan sakontzeari ekingo diogu. LOGSEk hiru gradutan banatu ditu irakaskuntza horiek: oinarrizkoa, ertaina eta goi-mailakoa, alegia. Beraz, aipaturiko atalburuan, zehazki, oinarrizko mailako eta maila ertaineko musika-irakaskuntzen antolakuntza akademikoa, ikasketetara sarbidea eta ikasketak amaitu ostean eskura daitezkeen tituluak aztertuko ditugu. Araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzei, ordea, bosgarren eta seigarren atalburuak eskainiko dizkiegu. Bertan, laugarren atalburuko eskema berbera jarraituko dugun arren, goi-mailako tituluari arreta berezia ipiniko diegu.

Zazpigarren atalburuan musika-ikastetxe ofizialen erregimen juridikoa aztertzekeo parada izanen dugu. Dena dela, bereziki goi-mailako musika-ikastetxeei helduko diegu, eta euren izaera juridikoaren azterketari jarriko diogu arreta gehien. Zortzigarren atalburuan berriz, musika-ikastetxe ofizialetan lan egiten duten hiru motatako irakasleen erregimen juridikoan sakonduko dugu: irakasle-funtzionarioena, irakasle espezialistena eta fundazioek kudeatzen dituzten musika-ikastetxeetako irakasleena, alegia.

Azkenik, bederatzigarren atalburuan, Boloniako Deklarazioak bultzatuta abian jarriko

den prozesua izanen dugu ikergai. Izan ere, prozesu honek, goi-mailako musika-irakaskuntzak antolatzeko Espainian dagoen eredia –hots, LOGSEk ezarritakoa– bete-betean ukitzen du.

2. Musika-irakaskuntzen bilakaera

Arestian esan bezala, ikerketa-lan honen derrigorrezko abiapuntua, musika-irakaskuntzen bilakaeraren azterketa dugu. Honela, deigarria da espainiar Estatuan, XIX. eta XX. mendeetan zehar, musika-irakaskuntzek bilakaera berezia izan dutela. Alegia, aipaturiko mendeetan barna abian jarritako hezkuntza nahiz kultura-politikek eraginda, musika-irakaskuntzak hezkuntzari buruzko ordenamendu juridiko orokorretik at gartzan joango dira, musika-kontserbatorioetako ikasketan plan espezifikoetara jarraiki⁴. Izan ere, musika-kontserbatorioak ditugu espainiar Estatuan, musikaren irakaskuntza espezifikoaren era antolatutakoa eta oso-osorik –goi-mailako ikasketak barne– irakasteko ardura euren gain hartuko duten lehenengo ikastetxeak.

1812ko Cádizko Konstituziotik hasita, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra onartzen deneraino, musika-irakaskuntzek hartuko duten norabidea izanen da, hein handi batean, gaur egun goi-mailako musika-irakaskuntzek bizi duten kontraesaneko egoeraren arrazoietako bat. Hau da, XIX. mendean, hezkuntzari buruzko ordenamendu juridiko orokorrean, musika-ikasketei goi-mailako irakaskuntzen *status*-a aitortzen dien araurik egon badago. Haatik, Madrilgo kontserbatorioa eratzearekin batera, musika-irakaskuntzek beste norabide bat hartuko dute, 1857ko Moyano Legeak⁵ baieztatuko duena. Gerora, aipaturiko norabidea 1868ko Severo Catalina Dekretuak⁶ berretsiko du, musika-ikasketak unibertsitateko antolakuntza akademikotik kanpo uzten dituen eta, ondorioz, musika-irakaskuntzek goi-mailako ikasketen *status*-a galtzen dutenean.

Musika-irakaskuntzak oro har taxutzeko eran lehenengo aldaketa zantzuak 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra⁷ onartzearekin batera ageri zaizkigu. Zehazki, goi-mailako musika-irakaskuntzei dagokienez, aipaturiko Legearen aurreikuspenetan oinarritzen dira irakaskuntza horiek goi-mailako ikasketen *status*-a berreskura

4. Hurrenez hurren, Dekretuon bitartez onartutakoak: 1917ko abuztuaren 25eko Dekretua (abuztuaren 30eko Gazetan argitaratua emana); 1942ko ekainaren 15eko Dekretua (uztailaren 4ko BOEn argitaratutakoa); eta 2618/1966 Dekretua, irailaren 10ekoa (urriaren 24ko BOEn argitaratua emana), hain zuzen ere.

5. 1857ko irailaren 9koa (irailaren 10eko Gazetan argitaratutakoa).

6. 1868ko ekainaren 17ko Errege Dekretua (ekainaren 18ko Gazetan argitaratua emana).

7. Hots, 14/1970 Legea, abuztuaren 4koa (abuztuaren 6ko BOEn argitaratua emana).

dezatela xede duten lehenengo ekimen garrantzi-
tsuak –antzu geratuko diren arren–.

LOGSEk ordea, aurrerapauso itzela eman-
go du espainiar Estatuko hezkuntza-sistemaren
historian lehenengo aldiz musika-irakaskuntzak,
araubide bereziko irakaskuntzak izenpean, hez-
kuntza-sistema orokorraren osagai egiten dituene-
an. Gertaera honek musika-irakaskuntzen ordura
arteko egituraketan aldaketak eragingo ditu.
Honela, LOGSE onartu ostean, musika-irakaskun-
tzak hiru norabide ezberdinen inguruan antolatuko
dira: profesionala eta borondatezkoa; ez profesio-
nala eta borondatezkoa; eta ez profesionala eta
derrigorrezkoa.

3. Musika-irakaskuntza orokorrak

Hezkuntzaren derrigorrezko etapei dagokie-
nez, Europako Kontseilua, Europar Batasuneko
erakundeak, baita UNESCO bera ere, inoiz mintza-
tu dira musikak betetzen duen funtzio sozialaz, eta
zera azpimarratu dute: adin goiztiarrenetatik hasita,
gizakiak musikan heztea onuragarria izan daiteke-
la⁸. Honetara, LOGSEren helburuetako bat, hez-
kuntza-sistemaren derrigorrezko mailetan bederen,
musika-irakaskuntzaren presentzia sendotzea izan
da. Alabaina, gerora, hezkuntza-sisteman jazoko
diren harat-honat guztiek –humanitateen erreforma
deiturikoak eta LOCE buru direla– aurkako joera
adieraziko digute: hain zuzen, musika-irakaskuntzei
ordura arte esleitutako ikastorduen %50eko urri-
tzea baino ez dakartela.

LOGSEren ondoren, unibertsitate-mailakoa
ez den hezkuntza-sisteman musika-irakaskuntzak
antolatzeko bi era bereiz daitezke: bata, musika-
irakaskuntzak araubide orokorreko irakaskuntzak
bailira taxutzen dituen, lehen hezkuntzako nahiz
bigarren hezkuntzako *curriculum*-etako osagai
bihurtuz⁹. Bestea, berriz, araubide orokorreko ira-

kaskuntzak –lehen hezkuntza, derrigorrezko biga-
rren hezkuntza eta batxilergoa– eta araubide
bereziko irakaskuntzak –oinarrizko mailakoak
nahiz maila ertainekoak– uztartzen dituen¹⁰.

Helburu profesionalik ez duten araubide
orokorreko musika-irakaskuntzen antolakuntzari
nahiz edukiei so egiten badiegu, zera ondoriozta
daiteke: heziketa-maila eskasa ematen dutela,
musikan aurre heziketa sendo bat galdatzen
duten goi-mailako zenbait irakaskuntzei ekiteko.
Hortaz, helburu profesional batekin musika-irakas-
kuntzak burutu nahi dituenak, hezkuntza-sistema
nola dagoen antolatuta ikusirik, aukera bakarra
dauka: aldi berean, araubide orokorreko irakas-
kuntzak eta araubide bereziko musika-irakaskun-
tzak burutzea, irakas-zama nabarmenki
areagotuz.

Egoera honen aurrean beraz, premiazkoa
bihurtu da hezkuntza-administrazioek neurriak
hartzea, bi irakaskuntza motak aldi berean egiteak
dakarren irakas-zama hori arintzeko edo malgu-
tzeko. Eta halaxe egin dute hainbat neurri aurrei-
kusiz eta aplikatuz: besteak beste, baliozkotzeak,
curriculum-aren egokitzapenak, dispentsak, musi-
ka-batxilergoa sortzea eta abar¹¹. Zalantza izpirik
gabe, neurri horiek guztiak txalogarriak dira.
Haatik, irtenbide bat baino ez dira, LOGSEk
aurreikusten dituen ikastetxe integratuen eraketa
orokortu bitartean.

Hain zuzen, araubide bereziko musika-ira-
kaskuntzen ikuspegitik behintzat, LOGSEk jaso-
tzen dituen aurreikuspenen artean
ausartenetakoa eta aurrerakoienetakoa dugu
aipaturiko ikastetxeen sorrera. Izan ere, ikastetxe
integratuak lirarteke etorkizuneko erronka eta
irtenbiderik egokiena, berez euren artean inolako
loturarik ez daukaten bi irakaskuntza moten *curri-
culum*-ak, gehiegizko irakas-zamarik eragin gabe,
hezkuntza-egitasmo bakarrean uztartzeko.

8. Ikus, zehazki, *Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarrak* 1981eko urriaren 8an onartutako Gomendioa, “*musika-irakaskuntza guztientzat*” izenburu-
pean [929 (1981) Gomendioa, urriaren 8koa, Kultura eta Hezkuntzari buruzko Komisioaren txostena aintzat hartzen duena (4740 dokumentua)];
Europako Parlamentuak 1988ko martxoaren 10ean onartutako Ebazpena, Europar Komunitatean musikaren irakaskuntza eta sustapena mintzagai
dituena (A 2-220/87 dokumentua, 1988ko martxoaren 14ko C 068 DOCEn argitara emana); baita Europar Komunitatean antzerkia eta musika sustatze-
ari buruz *Europako Parlamentuak* onartutako Ebazpena ere (A 3-262/91 Dokumentua, 1991ko azaroaren 25eko C 305 DOCEn argitaratutakoa);
Europar Batasuneko Kontseiluaren Ondorioak, 1997ko abenduaren 18koak, musikak Europan daukan egitekoari buruzkoak [98/C 1/04, 1998ko urtarril-
laren 3ko DOCEn argitara emanak)]; eta, azkenik, *UNESCOren Konferentzia Orokorrak*, 1999ko azaroaren 16an onartutako Ebazpena “*Promoción de
la educación artística y la creatividad en la escuela en el marco de la construcción de una cultura de paz*” izenburupean (UNESCOren weborrian, inter-
neteko helbide honetan eskura daitekeena: <http://www.unesco.org>).
9. Aipaturiko *curriculum*-ak, LOCEn ezarpen-egutegia denboran geroratzea dela-eta, oraindik indarrean dirauten ondoko Errege Dekretuetan finkatzen
dira: 1006/1991 Errege Dekretuan, ekainaren 14koan (ekainaren 26ko BOEn); 1007/1991 Errege Dekretuan, ekainaren 14koan (ekainaren 26ko
BOEn); 3473/2000 Errege Dekretuan, abenduaren 29koan (2001eko urtarrilaren 16ko BOEn); eta, 3474/2000 Errege Dekretuan, abenduaren 29koan
(2001eko urtarrilaren 16ko BOEn), alegia.
10. LOGSEko 41.1 eta 2 art.etako aurreikuspenei jarraiki, hain zuzen ere.
11. Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, 288/1992 Dekretuak, urriaren 27koak (abenduaren 16ko EHAAn argitara emanak) oinarritzko mailako eta
maila ertaineko araubide bereziko musika-irakaskuntzen *curriculum*-a finkatzen du. Eta, halaber, arautzen ditu hautazko irakasgaien baliozkotzeen
nahiz *curriculum*-aren egokitzapenen bitartez, araubide orokorreko irakaskuntzen eta araubide bereziko musika-irakaskuntzen aldirerakotasuna susta-
tzea xede duten irizpideak, baita musika-batxilergoa ere. Baliozkotzei eta *curriculum*-aren egokitzapenei dagokienez, 288/1992 Dekretuko aipaturiko
irizpideak, 2004ko abenduaren 3ko Agindu batek (2005eko urtarrilaren 4ko EHAAn argitara emanikoak) garatzen eta osatzen ditu. Musika-batxilergoari
dagokionean berriz, oraintsu aipaturiko 288/1992 Dekretuaren aurreikuspenak garatzen ditu, batxilergoko *curriculum*-a finkatzen duen 97/1997
Dekretuak, apirilaren 29koak (maiatzaren 7ko EHAAn argitaratutakoak), alegia.

Orobat, neurririk aproposena lirateke, etorkizunean musikaren profesionala izan nahi duenarentzat, ikastetxe integratuek aukera emango luketelako bi irakaskuntzak ikaslearen behar espezifikoiei egokitzen zaien eskola-ordutegi bakarrean burutzeko. Espainian, azken urteetan, gisa honetako zenbait esperientzia pilotu martxan jarri da; hala nola, Leioako eta El Escorialeko musika-kontserbatorioetakoak, Bartzelonako *Oriol Martorell* ikastetxekoa edo Liriako *Unió Musical*-ekoa.

Bestalde, espainiar hezkuntza-sisteman, materialki ia parekoak diren goi-mailako musika-irakaskuntzak bikoiztu egin dira, formalki ezberdinak diren bi titulu eratzeko: bata, unibertsitateko lizentziadun tituluaren baliokidea dena; bestea, berriz, unibertsitate mailakoa. Bada, bi irakaskuntza moten antolakuntzari eta edukiei so egiten badiegu, zera ondoriozta daiteke: araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzek, unibertsitate-mailako irakaskuntzek adina heziketa edo gehiago ematen dutela. Hau da, musikaren pedagogia, musikologia ala etnomusikologia bezalako araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzek, musika-hezkuntza espezialitatean maisu-diplomaturaren aldean, baita musika eta historia zientzietako nahiz musikologiako lizentziaturen aldean ere, sakontasun gehiagorekin trebatzen dute hala zientifikoki nola teknikoki¹².

Berebat, espainiar hezkuntza-sisteman, unibertsitate-mailako musika-irakaskuntzak ez dira eratzen aurreko mailatan zehar izan duten progresio baten ondorio bezala. Hortaz, unibertsitate-mailako musika-irakaskuntzei ekiten dien ikaslearen profila, aldeztu aurretik musika-irakaskuntza berezituak burutu ohi dituen ikasle batena da. Izan ere, musikan trebakuntza osagarririk jaso ezean –soilik derrigorrezko hezkuntzan eta batxilergoan jasotako heziketa eskasarekin–, nekez burutu ahal izango lituzke unibertsitate-mailako musika-ikasketak.

Honenbestez, zera baieztatu behar dugu: edukiari nahiz antolakuntza akademikoari dagokienez parekoak diren goi-mailako musika-irakaskuntzak nahiz tituluak bikoiztea zentzugabea dela. Azken batean, artifizialtzat jo daitekeen egoera hau, goi-mailako musika-ikastetxe ofizialen eta bertako irakasleen egungo erregimen ez unibertsita-

tarioak bortxatuta sortzen baita. Beraz, ezinbestekoa da, zentzurik ez duen bikoiztasun hori ekiditearren, goi-mailako musika-irakaskuntzen antolakuntza birformulatzea.

4. Musika-irakaskuntza ez arautua

LOGSEren beste erronketako bat ondokoa dugu: helburu profesionalik ez duen eta borondatezkoa den musikaren irakaskuntza abian jartzea. Xede honekin, beraz, musikaren kultura hedatzearren, eta hiritarrek, printzipioz ikuspegi praktiko batetik eta adin mugarik gabe, musika-heziketa jaso dezaten, hezkuntzaren erregimen komunitik at dagoen berariazko ikastetxe mota baten sorrera aurreikusten du LOGSEk: musika-eskolena, alegia. Bertan musika-irakaskuntza ez arautuak irakasten dira; hots, balio ofizialik ez daukaten tituluak lortzeko gaitzen dutenak¹³.

Juridikoki zein pedagogikoki era malguan taxutzen den musika-irakasteko bide honek, eratu zenetik, sekulako harrera, bultzada eta gorakada izan du. Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, Hezkuntza Sailaren azken emaitzen arabera, 1993-1994 ikasturtez geroztik, musika-irakaskuntza ofiziala irakasten duten oinarrizko mailako musika-ikastetxeen aldean, musika-eskolen kopurua laukoiztu egin da¹⁴.

Zerk eraginda? Bada, funtsean arrazoioik: batetik, helburu profesionalarekin musika ikasi nahi duen ikasleari dagokionez, araubide orokorreko irakaskuntzak eta araubide bereziko musika-irakaskuntzak aldi berean burutzeak, irakas-zamaren areagotze bat dakarkio. Eta ikastetxe integratuen eraketa orokortzen ez den bitartean, egoerak bere horretan jarrai dezake. Bestetik, araubide bereziko musika-irakaskuntzen egungo antolakuntza akademikoak, oinarrizko mailatik hasita, bete-betean, norabide profesionala hartzen du. Eta ikasketa horiei ekiten dien ikaslearen adina oso goiztiarra denez, ikasketa mota horren aldeko aukera ikaslearena izan ordez, gehienetan bere gurasoena izan ohi da. Beraz, baldintza horiekin, ikuspegi pedagogiko batetik, nekez susta liteke ikaslearen musikarako zaletasuna. Hain zuzen ere, sarritan aurkako joera piztea baino ez da lortuko.

12. Honetara, alderatu 617/1995 Errege Dekretua, apirilaren 21ekoa, araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzen *curriculum*-aren oinarrizko aspektuak zehazten dituena (ekainaren 6ko BOEn), unibertsitate-mailako musika-irakaskuntzak –hots, musika-hezkuntza espezialitatean maisu-diplomatura eta, musika eta historia zientzietako nahiz musikologiako lizentziaturak– erregulatzen dituzten ondoko arauekin: 1440/1991 Errege Dekretua, abuztuaren 30ekoa (urriaren 11ko BOEn), eta aipaturiko araua aldatzen duen 1561/1997 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa (azaroaren 4ko BOEn); 616/1995 Errege Dekretua, apirilaren 21ekoa, (ekainaren 2ko BOEn); eta, azkenik, 1998ko abuztuaren 28ko Agindua (irailaren 7ko BOEn).
13. Ikus LOGSEko 39.5 art. Orobat, musika-eskolei buruzko informazio zabala eskura daiteke *The European Music School Union* (EMU) deituriko elkartearen *web* gunean, interneteko helbide honetan: <http://www.musicschools-emu.net>
14. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren *web* orrian, <http://www1.hezkuntza.ej-gv.net> interneteko helbidean argitaratu emakoak, alegia.

Arautuak ez diren goi-mailako musika-heziketa ikastaroek, aldiz, zera dute helburu: sarrizan hezkuntza-sistemak dituen hutsuneak edo gabeziak osatzea. Alegia, araubide bereziko musika-irakaskuntzek etorkizuneko musikaren profesionalak maisutasunez eta kalitatez trebatzea xede duten arren, helburu hori ez da beti lortzen. Horregatik, goi-mailako musika-irakaskuntzak jadanik amaitu dituzten ikasleek, hezkuntza-sistematik kanpo antolatzen diren goi-mailako heziketa-ikastaroak burutu ohi dituzte, betiere euren gaitasuna lantzen eta bideratzen dakiten musikaren profesional entzutetsuekin edo *maisuekin*. Egun, Espainian, goi-mailako heziketa ikastaro hauek egin daitezke, goi-mailako hainbat musika-ikastetxe ofizialetan ez ezik, helburu horretarako soilik eratu diren ikastetxeotan ere: Santiago de Compostelako Goi-mailako Musika-ikasketen Eskolan edo Madrilgo Reina Sofía Goi-mailako Musika-Eskolan, esaterako¹⁵.

5. Oinarrizko mailako eta maila ertaineko araubide bereziko musika-irakaskuntzak

Musikaren irakaskuntza arautuari dagokionez, LOGSEk ezartzen duen ikasketa-plana abian jarri ahala, borondatezko izaera daukaten eta hasieratik bete-betean norabide profesionala hartzen duten oinarrizko mailako zein maila ertaineko musika-irakaskuntzek ikasle kopuru aldetik izandako beherakada nabarmenak zera adierazten digu: LOGSEk, bere helburuei jarraiki, aipaturiko mailentzat ikuspegi juridiko batetik egokiena bezala taxutzen duen plangintza akademikoak ez dirudiela aproposena denik ikuspegi pedagogiko batetik. Izan ere, Hezkuntza Ministerioaren azken ikasturteko emaitzen arabera, musika-irakaskuntzen oinarrizko maila burutzeko matrikulatutako ikasleen kopurua ia erdira murriztu da azken hiru ikasturteetan zehar, eta maila ertaina burutzeko matrikulatutako ikasleen kopurua, berriz, ia %20 gutxitu da¹⁶.

Dena den, ukaezina da araubide bereziko musika-irakaskuntzak hezkuntza-sisteman integratzea, aipaturiko irakaskuntzen bilakaera normalaren aldekoa izango dela. Aitzitik, erazkoa ez dirudi integratzeko moduak. Izan ere, LOGSEk egituratzen duen hezkuntza-sistemak, araubide

bereziko oinarrizko mailako zein maila ertaineko musika-irakaskuntzak burutzeko, ikasleari ezartzen dizkion baldintzak ez dira egokienak. Hau da, LOGSEk, araubide orokorreko irakaskuntzen derrigorrezko etapekin batera eta parez pare, oinarrizko mailako nahiz maila ertaineko araubide bereziko musika-irakaskuntzak gradu akademikoetan egituratzen ditu. Orobat, araubide bereziko oinarrizko mailako nahiz maila ertaineko musika-irakaskuntzak antolatzen ditu, araubide orokorreko irakaskuntzen hezkuntza-printzipio beretan oinarriturik.

Bada, egoera honen aurrean, zera izango litzateke komenigarria: LOGSEk eta bere edukia garatzen duten arauak aipaturiko irakaskuntzak antolatzeko taxutu duten plangintza birproposatzea, betiere LOGSEk bere zioen azalpenean aditza ematen duen malgutasunarekin.

Horretara, oinarrizko mailako musika-irakaskuntzei dagokionez, ez legoke arazorik, aipaturiko malgutasunaren babesean, musika-eskolen ardurapean lagatzeko, gaur egun oinarrizko mailako kontserbatorioek burutzen duten funtzioa. Jakina, horretarako funtsezkoa izango da musika-eskolak behar bezainbat baliabiderek hornitzea —ekonomikoak barne—. Proposamen honen helburua ez delako musika-eskolek huts-hutsean ordezka dezatela aipaturiko kontserbatorioen zeregin profesionalizatzailea. Oinarrizkoa izango da, berebat, musika-eskola batean musika-irakaskuntzak burutzeko norabide profesionala hautatzen duen ikasleari irakaskuntza mota horrek galdutako lukeen adina heziketa espezialdu bermatzea.

Maila ertaineko musika-irakaskuntzei dagokionez, berriz, LOGSEk aipatzen duen malgutasuna lortzearen, batik bat egokitze joko litzateke *curriculum*-etako edukiak murriztea¹⁷. Neurri honen aldeko aukera, gainera, inguruabar honek justifika lezake: LOGSE ondoren, maila ertaineko musika-irakaskuntzak burutu ostean lortuko litzatekeen titulu berriari ematen zaion balio urriak. Izan ere, LOGSEk soilik ondorio akademikoak aitortzen dizkio aipaturiko tutuluari; alegia, salbuespenak salbu, batxilergo tituluarekin batera, araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzei ekin ahal izateko gaituko luke bakarrik maila ertaineko tituluak¹⁸.

15. Ikus, honetara, 270/1997 Dekretua, irailaren 18koa (urriaren 3ko DOGen argitara emana) eta 1987ko azaroaren 13ko Agindua (abenduaren 30eko BOEn argitaratutakoa). Ikus, berebat, interneteko helbideok: <http://www.xunta.es/conselle/cultura/igaem/igaem.htm> eta <http://www.fundacionabeniz.com>

16. Aipaturiko emaitzen iturria Hezkuntza Ministerioaren ondoko lana dugu: *Estadísticas de la Educación en España, 2002-2003. Estadísticas de las Enseñanzas no universitarias*, MEC, 2004. Aipaturiko lana, halaber, interneteko helbide honetan eskura daiteke: <http://www.mec.es/mecd/estadisticas>

17. Araubide bereziko oinarrizko mailako nahiz maila ertaineko musika-irakaskuntzen *curriculum*-aren oinarrizko aspektuak 756/1992 Errege Dekretuak, ekainaren 26koak (abuztuaren 27ko BOEn argitara emanikoak) finkatzen ditu.

18. LOGSEko 42.2 art. arekin bat, alegia.

6. Goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzak: ikuspegi orokorra, antolakuntza akademikoa eta ikasketetara sarbidea

LOGSEk araubide bereziko musika-irakaskuntzetan helburu bi finkatzen ditu: bata, ikasleei kalitatezko heziketa artistiko bat eskaintzea; bestea, berriz, etorkizunean musikaren profesional izango direnen prestakuntza bermatzea. Bada, 617/1995 Errege Dekretuak musika-irakaskuntzen goi-mailarentzat taxutzen duen *curriculum*-arekin xede hori lor daitekeenik ezin da ukatu. Halaber, LOGSEk bere zioen azalpenean aditza ematen du musika-irakaskuntzak malgutasunarekin antolatuko direla, euren berezitasunak aintzat harturik. Hortaz, aipaturiko zioarekin bat, adin mugarik gabe eta titulu akademikorik ezean, goi-mailako musika-irakaskuntzei ekiteko aukera aurreikusten da.

Paradoxikoa dirudien arren, goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzek gaur egun daukaten *status*-a ezagutu eta ulertu ahal izateko, abiapuntua eta ardatz nagusia LOGSE dugu: hots, unibertsitate-mailakoa ez den hezkuntza-sistema arautzen duen Legea. Haatik, LOGSEk goi-mailako musika-tituluei aitortuko dien *status*-ak eraginda –efektu guztietarako unibertsitate-mailako tituluen baliokide izatearena, alegia–, zera ondoriozta daiteke: goi-mailako musika-irakaskuntzen antolakuntza akademikoa hurbilago dagoela unibertsitate-mailako hezkuntza-sisteman dauden antolakuntza-ereduetatik.

Hain zuzen, honen adierazgarri ditugu oraintsu aipaturiko 617/1995 Errege Dekretuan ageri zaigun hainbat osagai. Honela, goi-mailako musika-irakaskuntzak ziklo bakarrean antolatzea, baita ziklo honentzat aurreikusten den iraupena ere, bat letozke LOUren aurreikuspenekin ez ezik, Boloniako deklarazioak finkatzen dituen ildo orokorrekin ere¹⁹. Halaber, espezialitateen edukien antolakuntzari dagokionez, autonomia erkidegoek onartu dituzten *curriculum*-etan, espezialitate bakoitzean ikasi beharreko irakasgaiak, unibertsitate-mailako ikasketen antolakuntza-eredutik gertuago leudekeen modu batean taxutu dira. Izan ere, hiru talde nagusitan sailkatu ohi dira aipaturiko irakasgaiak: derrigorrezkoak, hautazkoak eta aukera askekoak, alegia.

Goi-mailako musika-irakaskuntzak neurtzeko erabiltzen den kreditu-sistemari dagokionez, ordea, zera azpimarratu beharra dago: kreditu-sistemaren erabilerak behin eta berriro adierazten duela unibertsitate-mailako ikasketak antolatzeko ereduarekiko hurbiltasuna. Alabaina, une hauetantxe, goi-mailako musika-irakaskuntzetan ezin da europar kreditu-sistemarik ezarri. Ezen, kontuan hartu behar dugu, europar kreditu-sistema abian jartzea dela derrigorrezko aurrebaldintza, LOUren aurreikuspenen ondorioz, etorkizun batean taxutuko diren graduiko unibertsitate-titulu ofizial berriak ezarri ahal izateko. Bada, goi mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzak behin-behinekotasunez indarrean dirauen unibertsitate-titulu ofizialen katalogoan agertzen ez direnez, gaur egun europar kreditu-sistema ez zaie ezagarria²⁰.

7. Goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzen tituluak eta lan-aukerak

LOGSEk iraultzat har daitekeen berebiziko urratsa emango du, musika-irakaskuntzen historian zeharo berria eta apartekoa den ondoko baieztapenaren bitartez: goi-mailako musika-tituluak unibertsitate-lizentziatu tituluaren baliokideak direla ondorio akademikoetarako nahiz profesioaletarako, alegia²¹.

Honela, unibertsitate-mailakoa ez den hezkuntza-sistemaren osagai diren goi-mailako musika-irakaskuntzek goi-mailako ikasketen kategoria eskuratuko dute. Alabaina, kontraesana dirudien arren, goi-mailako musika-irakaskuntzak ez dira unibertsitatean integratuko. Eta goi-mailakoak izan arren, bakarrik unibertsitate-mailako ikasketen parekoak izango dira. Hau da, LOGSE ondoren eskura daitekeen titulua dela medio, zentzu zabalean, goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzak unibertsitate-mailako ikasketen pare jar litezke, eta nolabait ikasketa unibertsitarioen *kutsua* dutela esan genezake. Zentzu heretsian, ordea, soilik titulazioaren ikuspegi materialetik jarriko dira unibertsitate-mailako ikasketen parean, eta bakar-bakarrik ikuspegi horretatik izango dute unibertsitate-ikasketen *ukitua*.

Era berean, LOGSE onartu ostean, goi-mailako musika-tituluak, formari dagokionez, unibertsitate-mailako tituluen baliokide izanen dira, eta materialki edo edukari dagokionez, berriz,

19. Ikus LOGSEko 39.1.c) art. eta 617/1995 Errege Dekretuko 1 art.; 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateena (abenduaren 24ko BOEn argitara emana), XIII. atalburua bereziki; eta 1999ko ekainaren 19ko *Boloniako deklarazioa* (besteak beste, interneteko helbideotan eskura daitekeena: <http://www.mec.es>, <http://www.crue.org...>).

20. Ikus, honetara, 1125/2003 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, europar kreditu-sistema ez ezik, ofizialak diren unibertsitate titulazioetan kalifikazio-sistema ezartzen duena ere (irailaren 18ko BOEn argitara emana).

21. Aipaturiko baieztapena LOGSEko 42.3 art.ak egiten du.

unibertsitate-mailako titulu bihurtuko dira. Aitzitik, inertziaz, unibertsitate-mailako tituluak ez direla dirudi. Izan ere, behin eta berriro, unibertsitate-legediak ahaztu egin ditu, edo alde batera utzi. Ondorioz, gaur egun, araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzak ez dira unibertsitatean irakasten, eta eurak burutu ostean lortutako tituluak ez dira ageri unibertsitate-mailako titulu ofizialen katalogoan²².

Dena dela, dagoeneko abian den Boloniako prozesuaren eraginez, eta, bereziki, Espainiarekin batera prozesu horretan murgildurik dauden Europako beste herrialdeetan, goi-mailako musika-irakaskuntzak burutuz gero lor daitezkeen tituluak, formalki, unibertsitate-mailakoak diren heinean, litekeena zera da: etorkizun batean Espainian ere goi-mailako musika-tituluak formalki unibertsitate-mailako titulu bihurtzea, baliokide izan ordez. Ondorioz, goi-mailako musika-titulua, unibertsitate-tituluen katalogo ofizialeko osagai izango litzateke, eta goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzei, zentzu guztietan, ikasketa-unibertsitarioen *status*-a aitortuko litzazieke.

Izan ere, legegintzaren ikuspegitik koherentea eta, duda barik, titulazioaren ikuspuntu formaletik arazorik gutxien ekarriko lukeen aukera, goi-mailako musika-tituluak unibertsitate-mailako irakaskuntzari dagokion marko juridiko berean arautzea izango litzateke. Eta honetarako oztopo juridikorik ez legoke. Haatik, unibertsitate-legeek goi-mailako musika-tituluak unibertsitate-sistemaren osagai gisa esplizituki aintzat ez hartzearen aldeko aukera egin dute.

Bien bitartean, goi-mailako musika-tituluen eta unibertsitate-mailako tituluen arteko baliokidetzat, unibertsitate-mailako hezkuntzari ez dagokion lege batek ezartzen du: LOGSEk alegia. Hortaz, uneotan, ebatzi gabe edo solte geratzen diren formazko aspektu batzuen kariaz, goi-mailako musika-tituluak oraino ez daude formalki edo *de iure* unibertsitate-sisteman integraturik eta, ondorioz, ez dute unibertsitate-mailako tituluen *status* berbera. Alabaina, zera azpimarratu beharra dago: goi-mailako musika-tituluak materialki edo *de facto* unibertsitate-mailako tituluak direla, euren baliokide diren heinean. Beraz, edukiari dagokionez, unibertsitate-mailako tituluen balio berbera dutelako, goi-mailako musika-tituluek, unibertsitate-mailako titulu batek adina gaitasun akademiko zein profesional aitortuko dute.

Honetara, hain zuzen ere, goi-mailako musika-titulua eskuetan izanik, eginiko ikasketak sakonean aztertu nahi dituenari, LOGSEk bide berri bat urratzeko aukera emango dio: unibertsitatean ikerketan jardunez, hirugarren zikloko ikasketak burutzekoa, alegia²³. Bada, jakin badakigu gaur egun espainiar hezkuntza-sisteman doktorego-ikasketak unibertsitateetan baino ezin direla burutu. Hortaz, doktorego-ikasketei ekin eta aipaturiko ikasketak amaitzen dituen orok, bete-betean unibertsitate-mailakoa den titulu akademiko eta ofizial bat eskuratu ahal izango du: doktore-titulua, alegia. Nolanahi ere, gaur egun, espainiar hezkuntza-sisteman doktore-gradua soilik unibertsitatean eskuratu ahal izateak ez du esan nahi, etorkizunari begira, ikerketa-gune bakarra unibertsitatea izan behar denik. Ezen 617/1995 Errege Dekretuak, goi-mailako musika-ikastetxeak, unibertsitateekin batera, ikerketa sustatzeko zein burutzeko zeregina duten eremu gisa onartzen ditu. Eta gerora, 9/1995 Lege Organikoak (edo LOPEGek) lege-lerruna aitortuko dio 617/1995 Errege Dekretuak xedatutakoari²⁴.

Jakina, egia da goi-mailako musika-ikastetxeren antolakuntza nahiz irakasleen erregimena aldatzen ez den bitartean, aipaturiko arauak xedatutakoa asmo hutsean baino ez dela geratuko. Hau da, ikasketen antolakuntza akademikoari dago-kionez, goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzek unibertsitate-mailako ikasketen makina bat elementu eskuratu dituzten arren, oro har, goi-mailako musika-ikastetxeek, bigarren hezkuntzako ikastetxeen erregimen berbera izaten darraite. Eta irakasleekin berdin-berdina gertatzen da.

Hortaz, goi-mailako araubide bereziko musika-irakaskuntzen bilakaera erabatekoa izan dadin, abiapuntu gisa, beharrezkoa zera dugu: Boloniako deklarazioak bultzatzen duenari jarraiki, goi-mailako musika-irakaskuntzak bi zikloetako egiturara moldatzea; eta ondorioz, doktorego-ikasketak antolatzeko ahalmena, unibertsitateei ez ezik, goi-mailako musika-ikastetxeei ere esleitzea.

Europar Batasunean eta Europar Batasunetik kanpo dauden herrialdeetako hezkuntza-sistemen arabera erdietsitako goi-mailako musika-tituluei espainiar hezkuntza-sistemak aitortzen dizkien ondorioei dagokienez, zera azpimarratu beharra dago: 1754/1998 Errege Dekretua onartzearekin batera, Espainian, erregulatutako profesio bihurtuko dela musika-irakaskuntza ofizialen musika-irakasle lanbidea. Eta hortaz, goi-mailako musi-

22. Aipaturiko katalogoa ondoko Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak jasotzen du: 1497/1987 Errege Dekretua, azaroaren 27koa, Estatu osoan ofizialak eta baliozkoak diren unibertsitate-tituluen ikasketa-planen jarraibide orokor komunak ezartzen dituen (abenduaren 14ko BOEn argitaratutakoa).

23. Ikus LOGSEko 43.4 art.

24. Hau da, 9/1995 Lege Organikoak, azaroaren 20koak (azaroaren 21eko BOEn argitara emanikoak).

ka-tituluei ere, goi-mailako titulu komunitarioak elkar onartzeko sistema ezarriko zaie²⁵. Alabaina, atzerriko tituluak homologatzeko nahiz baliozkotzeko, 104/1988 Errege Dekretuak unibertsitate-mailakoak ez diren tituluentzat arautzen duen prozedura jarraitu beharko da, kontraesana dirudien arren²⁶.

Honenbestez, musikaren profesioak, profesio tituludun bezala, irakaskuntza publikoaren eremuan dauka bere adierazpenik nagusia. Honela, funtzio publikoan, araubide bereziko musika-irakaskuntza ofizialen irakasle bezala lan egin nahi duenari, oro har, musika-titulu bat edukitzea galdatu ohi zaio.

8. Musika-ikastetxe ofizialen erregimen juridikoa

Musika-ikastetxeei dagokienez, ikastetxe ofizialei buruzko araudiari so egiten badiogu, honakoz ohar gaitezke: ikastetxeetan irakasten den maila akademikoaren arabera, ikastetxe mota anitz dagoela. Hau da, oinarrizko mailako, maila ertaineko eta goi-mailako musika-kontserbatorioak; maila bereko baimendutako musika-ikastetxe pribatuak; eta Madrilgo goi-mailako Kantu Eskola. Orobat, ikastetxearen titulartasuna eta kudeatzeko era aintzat hartuz gero, izaera juridiko ezberdina daukaten ikastetxeekin egiten dugu topo: funtsean, ikastetxe publikoekin eta pribatuarekin. Ikastetxe publikoen artean, halaber, ondokoak bereiz daitezke: administrazioak zuzenean kudeatzen dituen ikastetxeak, eta zeharka kudeatzen dituenak –organismo autonomoen eta fundazioen bitartez, alegia–. Eta pribatuen artean berriz ondokoak: guztiz pribatuak direnak, eta administrazioak sortzen dituenak –ikastetxe pribatu gisa edo fundazio bezala–.

LOGSEk ez ditu musika-ikastetxeak arautzen. Aitzitik, araubide bereziko musika-irakaskuntzetan abian jartzen duen berrantolaketak zera galdatzen du: ordura arteko musika-ikastetxeak berregituratzea, euren taxutzea zein baldintza materialak musika-irakaskuntzen helburu berrieekin bat etor daitezkeen. Hortaz, xede horiek betetzea-

rren 389/1992 Errege Dekretuak arautuko ditu musika-ikastetxe ofizial guztiek bete beharreko gutxieneko baldintzak²⁷.

Hain zuzen, Errege Dekretu honetatik zera ondoriozta daiteke: araubide bereziko musika-irakaskuntzak soilik ikas daitezkeela ofizialak diren bi ikastetxe motatan: hots, musika-kontserbatorio publikoetan eta baimendutako musika-ikastetxe pribatuetan. Halaber, musika-ikastetxeek soilik maila akademiko bakarra irakatsi ahal izango dutela. Baita, musika-ikastetxe ofizial orok gutxieneko batzuk bete beharko dituela ere, aspektuotan: irakatsi beharreko espezialitateetan; eskola-postuetan; eta, instalazio nahiz baldintza materialetan. Musika-ikastetxe pribatuen kasuan gainera, aipaturiko gutxieneko ukanbeharrei beste bat gehitu behar zaie; administrazio-baimena lortu behar izatea²⁸, ikastetxe pribatua ireki eta abian jartzeko, alegia.

Musika-ikastetxe publikoetako gobernu-organoei dagokienez, gaur egun LOCEn jasotzen da oinarrizko araudia, zera aurreikusiz: hezkuntza-administrazioek, aipaturiko ikastetxeen bereiztasunetara egokituko dutela, gobernu organoei eta parte hartze organoei buruz LOCEk zedatutakoa. Alabaina, aurreikuspen hori nekez bete da, eta bien bitartean, subsidiarioki eta analogiaz, bigarren hezkuntzako ikastetxeentzat onartutako erregelamendu organikoak ezarri ohi dira. Nolanahi ere, iragankortasun egoerak ezin du luzaroan iraun. Ezen, LOCEk nabarmenki aldatzen du ikastetxeetako barne-organoen egitura, baita eurak hautatzeko modua ere.

Zehazki, goi-mailako musika-ikastetxeetako gobernu-organoei dagokienez, zera azpimarratu beharra dago: 389/1992 eta 1220/1992 Errege Dekretuen arabera²⁹, soilik araubide bereziko goi-mailako musika-irakaskuntzak irakatsiko dituzten lehenengo ikastetxeak sortuko direla Estatuan. Ondorioz, 1815/1993 Errege Dekretuak ezabatu egiten du, ordura arte, goi-mailako musika-kontserbatorioetako eskola-kontseiluetan eta hauteskunde-batzordeetan, ikasleen gurasoek parte hartzeko zeukaten aukera³⁰. Izan ere, printzipioz ez litzateke bat etorriko goi-mailako ikastetxe

25. Ikus 1754/1998 Errege Dekretua, uztailaren 31koa (abuztuaren 7ko BOEn argitara emana). Hain zuzen, aipaturiko Errege Dekretuak, zuzentaruon transposizioa egiten du espainiar ordenamendu juridikora: 95/43/CE eta 97/38/CE direktibena, hain zuzen ere. Halaber, Errege Dekretu biren eranskinak aldatzen ditu: hots, 1665/1991 eta 1396/1995 Errege Dekretuenak.
26. Ikus 104/1988 Errege Dekretua, urtarrilaren 29koa (otsailaren 17ko BOEn argitaratutakoa), eta baita aipaturiko Errege Dekretua ezartzeko onartzen den 1988ko martxoaren 14ko Agindua ere (martxoaren 17ko BOEn argitara emana). Gogoan izan behar dugu bi arauak LOGSEren aurrekoak direla. Beraz, araubide bereziko musika-irakaskuntzei dagokienez, LOGSEk taxututako ordenamendu juridiko berrira egokitzearen, 104/1988 Errege Dekretuak eta 1988ko martxoaren 14ko Aginduak hainbat aldaketa izan dituzte, Aginduon bitartez: 1996ko apirilaren 30ekoa (maiatzaren 8ko BOEn argitara emanikoa) eta 2002ko abenduaren 16ko ECD/3305/2002 (abenduaren 28ko BOEn argitaratutakoa).
27. Hau da, 389/1992 Errege Dekretuak, apirilaren 15ekoak (apirilaren 28ko BOEn argitara emanikoak).
28. Hain zuzen, 321/1994 Errege Dekretuak, otsailaren 25ekoak (apirilaren 5ko BOEn argitara emanikoak) arautzen duen prozeduraren arabera.
29. Hots, 1220/1992 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa (urriaren 22ko BOEn argitara emana). Badago 1220/1992 Errege Dekretuaren izaera aztertzen duen Auzitegi Gorenaren Epai bat, 1997ko urtarrilaren 28koa (Aranzadi 534). Hain zuzen, aipaturiko Epaiaren arabera, 1220/1992 Errege Dekretua erregelamendu independente bat da eta, hortaz, Estatu Kontseiluaren irizpena ez da beharrezkoa (ikus, zehazki, aipaturiko Epaiaren 2. eta 3. zuzenbideko oinarriak).
30. Ikus 1815/1993 Errege Dekretua, urriaren 18koa (azaroaren 6ko BOEn argitaratutakoa).

horietako ikasleek edukiko luketen adinarekin, adinez nagusi izango lirakeelako.

Bada, inguruabar honek zera uzten du agerian: goi-mailako musika-ikastetxeak bigarren hezkuntzako ikastetxeak bailiran antolatzea, kontraesanen iturri baino ez dela, eta nahasmen-du puntu bat gehitzen diola goi-mailako musika-irakaskuntzen bilakaera juridiko normalari³¹. Horregatik, kontraesanak saihestea helburu duten neurriak agertzen hasi zaizkigu.

Esaterako, musika-kontserbatorioak bigarren hezkuntzako ikastetxeak bailiran antolatzeko ohiko ereduari ihes egiten dioten goi-mailako musika-kontserbatorioak eratu dira dagoeneko zenbait autonomia erkidegotan –une hauetantxe, Balear uharteetan, Aragoi eta Kanarietan, alegia–. Bada, kontserbatorio hauetan ez dago jadanik eskola-kontseilurik. Aitzitik, bertan irakasten diren irakaskuntzen mailarekin eta eskura daitezkeen tituluekin bat datozen gobernu-organo batzuk eratu dira; azken batean, unibertsitateen barne antolakuntzari hurbiltzen zaizkion organoak. Gainera, Aragoien eta Balear uharteetan, goi-mailako musika-kontserbatorioak autonomia maila handiagoarekin antolatzeko, administrazioek zeharkako kudeaketa hautatu dute. Honela, Aragoiko goi-mailako musika-kontserbatorioa organismo autonomo batek kudeatzen du –goi-mailako irakaskuntza artistikoen Aragoiko Institutuak, alegia–, eta Balear uharteetakoak, berriz, administrazioak eratutako fundazio batek³².

Beste hezkuntza-administrazio batzuek ordea, helburu berdinarekin eta betiere zeharkako kudeaketa erabiliz, formalki formula pribatuera jo dute goi-mailako musika-ikastetxeak antolatzeko. Hauxe dugu, printzipioz pribatuak diruditen Kataluniako *Esmuc*-en eta Euskal Herriko *Musikene*-n gertatzen dena, baimendutako ikastetxe pribatu gisa eratu direlako³³.

Dena dela, *Musikene*-k aparteko arreta merezi du. Izan ere, berriki –2004ko irailean– argitaratu eman da *Musikene* kudeatzen duen fundazio pribatuaren fiskalizazio-txostena behin betiko oniritzen duen Euskal Herriko Kontu Epaitegiaren Erabakia³⁴. Eta txosten honetan, hain zuzen, Kontu Epaitegiak gaiari buruz hausnartzera garamatzaten

arazook utziko ditu agerian: *Musikene* juridikoki ikastetxe pribatu izanik, ikastetxea kudeatzeko sortuko den fundazioa, jatorriz Eusko Jaurlaritzako hezkuntza-administrazioakoak diren kidez osatuta dagoela gehiengo batean. Halaber, ikastetxearen finantzaketa-iturri ia bakararra, hezkuntza-administrazioetik eratorritakoa dela. Honetara, fiskalizazio-txostenari jarraiki, 2004 urterako, *Musikene*-ri esleitutako diru-hornidura 8.138.000 eurotakoa da (1.354 milioi pezetakoa, alegia).

Honenbestez, Bartzelonako *Liceu* goi-mailako baimendutako ikastetxe pribatuari egin behar diogu aipamen, erregimen guztiz berezia baitauka. Hau da, goi-mailako musika-ikastetxea kudeatzeko, benetan pribatua den fundazio bat eratu da, eta beraz, Estatu osoan gisa honetako ikastetxe pribatu bakararra dugu³⁵. Izan ere, deigarria da, Euskal Herriko *Musikene*-ren aldean esaterako, 2004 urtean, *Liceu*-k, aurrekontu publikoetatik 34.000 euro baino ez dituela jaso, eta, hortaz, gainerako diru-hornidura, halabeharrez, hainbat mezenasengandik eratorritakoa dela.

9. Musika-irakaskuntza ofizialetako irakasleen erregimen juridikoa

Musika-irakaskuntzetan LOGSEk abian jarritzen duen berrantolaketak, bete-betean ukitzen ditu musika-irakasleak, batik bat, musika irakasteko galdutako zaien prestakuntzari edo kualifikazioari dagokionez. Orobat, musika-irakaskuntzen birmoldaketa horrek, zuzenean eragiten du musika-ikastetxeen eta musika-irakasleen arteko harremanetan. Honela, musika-ikastetxe ofizialen eta bertan lan egiten duten irakasleen artean, hiru motako harreman juridikoak bereiz daitezke: funtzio publikoari dagokiona, administrazio-kontratu baten menpe dagoena eta lan-kontratu bidezkoa, hain zuzen ere. Hauetariko harreman juridiko bakoitzak adierazten digu, kasuan kasu ezberdina izan dena, irakaslea, ikastetxeari –edo ikastetxea kudeatuko duen antolakuntzari– atxikitzeko edo lotzeko erabiliko den *tresna*. Aipaturiko harreman juridiko bakoitza, halaber, bat etorri ohi da ikastetxearen izaerarekin: publikoa edo pribatua, alegia.

31. Ikus EMBID IRUJO, A. "Un siglo de legislación musical en España (Y una alternativa para la organización de las enseñanzas artísticas en su grado superior)". In: *Revista de Administración Pública*, 153 zkia., 2000; 496-497 orriak bereziki.

32. Aragoien, 17/2003 Legeak, martxoaren 24koak (apirilaren 11ko BOAn argitara emanak) eratzen du goi-mailako irakaskuntza artistikoen Aragoiko institutua. Kanarietan, berriz, 137/2002 Dekretuaren, irailaren 23koakoaren bitartez (urriaren 18ko BOCen argitara emanikoak) sortzen da goi-mailako musika-kontserbatorioa. Eta Balear Uharteetan, azkenik, 2001eko ekainaren 1ean hartutako Erabaki batek (ekainaren 19ko BOIBen argitaratutakoak), goi-mailako musika-kontserbatorioaren eraketa eta aipaturiko kontserbatorioa kudeatuko duen fundazioaren Estatutuak onartzen ditu.

33. Ikus, honetara, Katalunian 2001eko abenduaren 3ko Ebazpena (abenduaren 10eko DOGCen argitaratutakoa), eta Euskal Herrian, ostera, 2002ko azaroaren 29ko Agindua (2003ko urtarrilaren 9ko EHAAn argitara emana).

34. Ikus, zehazki, Euskal Herriko Kontu Epaitegiaren Osokoaren Erabakia, behin betiko oniritzen duena *Musikeneren Fundazio pribatuaren fiskalizazio-txostena* (2004ko urtarrilaren 26ko bilkuran hartutakoa) eta aipaturiko Erabakiaren Eranskin gisa argitara ematen dena 2004ko irailaren 30eko EHAAn.

35. 1933/2002 Ebazpenak, ekainaren 27koak (uztailaren 5eko DOGCen argitaratutakoak) eratzen du aipaturiko ikastetxea.

Bada, musika-ikastetxe publikoetan –edo kontserbatorioetan– aipaturiko harreman juridikoa formalizatu ohi da karrerako irakasleak funtzionario izendatuz: hots, musika-irakasleen kidegokoa edo musika-katedradunen kidegokoa. Musika-irakasleen kidegoko funtzionarioek, oro har, araubide bereziko musika-irakaskuntzen oinarritzko mailan nahiz maila ertainean irakatsiko dute. Eta salbuespenez, hala zehaztutako araubide bereziko goi-mailako irakaskuntzak ere irakatsi ahal izango dituzte. Musika-katedradunen kidegoko irakasleek, berriz, araubide bereziko musika-irakaskuntzen goi-mailan irakatsiko dute³⁶.

Honek esan nahi du, LOGSEk, musika-katedradunen kidegoari, bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoaren *status*-a ematen diola, berez, irakasten duen irakaskuntzaren mailarekin bat, goi-mailako irakasleen kidegoena dago-kionean. Hain zuzen, etorkizunari begira komenigarritzat jo liteke, musika-katedradunek goi-mailako ikasketak irakastea, unibertsitateko irakasle-kidegoa bailira.

Musika-irakasle funtzionarioei dagokienez berebat, funtsezkoa da euren espezialitatea zehaztuta egotea, eta LOGSEk, zeregin hori Estatuko Gobernuari esleitzen dio. Honela, 989/2000 Errege Dekretuak musika-irakasleen kidegoari egokitutako espezialitateak zehazten ditu³⁷. Aitzitik, katedradunen kidegoari dagozkion espezialitateak oraindik zehazteke daude. Bada, Estatuko Gobernuaren ahalmen erregelamendugilearen jarduera eza honek eragina izanen du aipaturiko kidegoan sartu ahal izateko hezkuntza-administrazioek egin beharreko hautapen-proben deialdietan. Hau da, espezialitateak zehaztu arte, hezkuntza-administrazioek ezin dituzte euren menpe dauden goi-mailako musika-kontserbatorioetako pertsonalaren plantillak egokitu, eta, ondorioz, juridikoki blokeatuta daude hautapen-proben deialdiak egiteko³⁸. Dena dela, bien bitartean, autonomia erkidegoek mekanismo ezberdinak erabili ohi dituzte hutsik dauden lanpostuak hornitzeko; funtsean hauek: bitarteko irakasleen nahiz zerbitzu-egiteen bidez hornitzea.

Musika-ikastetxe publikoetan funtzio publikoak nagusi izaten badarrai ere, badago administrazio-kontratuen menpeko irakaslerik. Hau da, LOGSEk zera aurreikusten du: printzipioz, irakaskuntzaren eremutik at euren jarduera burutzen duten profesionalak kontratatzeko aukera dagoela, aipaturiko ikastetxe publikoetan irakats dezaten. Unibertsitate-mailakoa ez den irakaskuntzan bederen, aparteko izaera daukan figura hau, irakasle espezialista (edo asoziatua) izenarekin ezaguna da. LOGSEn aurreikuspen horiek Hezkuntza Ministerioaren lurralde-esparruan 1560/1995 Errege Dekretuak garatzen ditu³⁹. Bada, bertatik, baita beste autonomia erkidegoetan gerora onartu diren eduki bereko arauetatik ere, zera ondorioztatzen da: oro har, denboraldi baterako, arduraldi osorako edo ez osorako, eta administrazio-zuzenbidearen arabera, musika-irakasle espezialistak kontratatzeko aukera dagoela. Alabaina, atzerriko musika-irakasle espezialistak kontratatzerakoan, modu iraunkorrean eta lan-zuzenbidearen menpe ere egin liteke. Honenbestez, irakasle espezialistak titulazio-baldintzak betetzeaz kanpo utz daitezke.

Gutziz pribatuak diren ikastetxeetan –*Liceu*-ko Kontserbatorioan gertatzen den bezalaxe–, baita finantzaketa ia guztiz publikoa izan arren, formalki pribatuak diren musika-ikastetxeetan ere –hots, *Esmuc*-en eta *Musikene*-n jazotzen den moduan– harreman juridikoa lan-kontratu baten bitartez formalizatu ohi da, eta salbuespenez, zerbitzu-akurapen kontratu bidez⁴⁰.

Hain zuzen, arestian aipaturiko *Musikene*-ren fiskalizazio-txostena dela-eta, aparteko arreta merezi du berriro ere, *Musikene*-ko irakasleen kontratazioari dagokionez, Euskal Herriko Kontu Epaitegiak iritzi duena. Alegia, irakasleak kontratatzerakoan legea urratu dela. Izan ere, administrazio publiko batek, zerbitzu publiko bat eskaintzeko sortzen eta kudeatzen dituen fundazioetako pertsonala kontratatzerakoan, berdintasun, argitalpen, meritu eta gaitasun printzipioei derrigorrean begirunea zor zaie. Aitzitik, *Musikene*-k baztertu egin ditu printzipio horiek

36. Hots, LOGSEko 14. xedapen gehigarriko 1. atalaren arabera.

37. Hau da, 989/2000 Errege Dekretuak, ekainaren 2koak (ekainaren 22ko BOEn argitara emanikoak).

38. Hain zuzen, 2002-2003 ikasturteari zegokion txostenean (baita 2001-2002 ikasturteari zegokionean ere), Estatuko Eskola Kontseilua Hezkuntza Ministerioari zuzentzen zitzaion, zera eskatuz: “Desde 1990, en que se promulgó la LOGSE, el único Cuerpo del que aún hoy no están reguladas las especialidades correspondientes, es el Cuerpo Catedráticos de Música y Artes Escénicas; por ello, este Consejo vuelve a instar al Ministerio de Educación a elaborar, con la mayor brevedad posible, el correspondiente Real Decreto de especialidades que permita tanto la adecuación de las plantillas de los centros, como la convocatoria de los pertinentes procedimientos de acceso a dicho Cuerpo”. Ikus, honetara, *Informe sobre el estado y situación del sistema educativo, curso 2002-2003*. In: MEC, Consejo Escolar del Estado, 2004. Interneteko helbide honetan ere eskura daiteke aipaturiko txostena: <http://www.mec.es/cesces>

39. Hots, 1560/1995 Errege Dekretuak, irailaren 21ekoak (urriaren 21eko BOEn argitara emanikoak).

40. Ikus, *Esmuc*-eko irakasleen lan-baldintzei dagokienez, aipaturiko ikastetxearen weborria: <http://www.esmuc.net> helbidea. Eta *Musikene*-ko irakasleei dagokienez, berriz, euren lan-baldintzei buruzko xehetasunak ematen dizkigu arestian aipaturiko *Musikeneren fundazio pribatuaren fiskalizazio-txostena* (2004ko irailaren 30eko EHAAn argitara emanikoak).

guztiak⁴¹; behintzat, 2004ko abuztuan, OPE deiturarekin, 2004-2005 ikasturterako irakasleak hautatzeko deialdia argitaratzen duenera arte. Eta gertaera honek harridura baino ez du eragiten; oinarriak, edukiari dagokionez, funtzio publikoan eginiko oinarrien parekoak izanik, formalki ez direlako Euskal Herriko aldizkari ofizialean argitara ematen; *Musikene*-ren web orrian baizik⁴².

Azkenik, LOGSEK aurreikusten du, goi-mailako musika-irakaskuntzetan, Gobernuak irakasle emerituaren figura ezarriko duela. Oraindik aurreikuspen honek garapenik izan ez duen arren, aipagarria da, zera adierazten duelako: LOGSEK goi-mailako musika-tituluei aitortzen dien *status* berriak eraginda, unibertsitateko irakasle emerituaren figurak, nolabait, goi-mailako musika-irakaskuntzetan ere lekuri baduela⁴³.

10. Boloniako prozesuan zehar, zein da goi-mailako musika-irakaskuntzen tokia?

Europar, goi-mailako irakaskuntzen esparrua erabateko eraldatze prozesu batean murgildurik dago, Sorbonako deklarazioarekin batera ekin zitzaion konbergentziaren ondorioz. Gerora, Boloniako, Pragako eta Berlineko deklarazioak egingo dira⁴⁴ –eta 2005. urtean, Bergenen, ildo beretik jarraitzea aurreikusten da–. Guztiek, bada, helburu dute, 2010. urtean, Boloniako Deklarazioan finkatutako xedeak gauza daitezela. Alegia: bi ziklotan edo mailatan oinarritutako titulazio-sistema bateratu bat ezartzea, kreditu-sistema komuna darabilena, mugikortasuna sustatzen duena, kalitatezkoa eta europar eremua daukana.

Erronka hauek, jakina, goi-mailako irakaskuntza guztietara hedatzen dira; eta ez bakarrik hertsiki unibertsitate-mailakoak direnetara. Hortaz, goi-mailako irakaskuntzaren europar esparruaren helburuak, goi-mailako musika-irakaskuntzei nahiz tituluei ere ezartzeko, ez legoke eragozpenik. Hain zuzen horixe ondoriozta daiteke Europako Parlamentuak, 2002. urtean, ezagutzari buruzko europar esparruaren osagai diren unibertsitatei nahiz goi-mailako irakaskuntzei buruz onartutako ebazpenetik⁴⁵.

Zuzenbide konparatura jotzen badugu, musika-irakaskuntzen sistemok topa ditzakegu: batetik, espainiar sistemaren antzekoa darabilten herrialdeetakoak –Frantziakoa, Italiakoa, Belgikakoa, Txekiakoa edo Irlandakoa, esaterako–. Herrialde hauetan, goi-mailako musika-irakaskuntzak, unibertsitatean formalki eta zuzenean integratzen ez diren kontserbatorioetan burutu ohi dira. Bestetik, goi-mailako musika-irakaskuntzak, unibertsitatean integratuta dauden herrialdeetako sistemekin egiten dugu topo. Eta hain zuzen, herrialde hauen artean, hiru integrazio-eredu bereiztu ditugu: lehenengoa, goi-mailako musika-irakaskuntzak beste edozein goi-mailako ikasketa bezalaxe, unibertsitatean integratzen dituzten herrialdeetakoak –hots, Suediakoa, Britainia Handikoa, Finlandiakoa edo Errumaniakoa–. Bigarrena, goi-mailako musika-irakaskuntzak unibertsitate artistikoetan integratzen dituzten herrialdeetako ereduak –Austrian edo Islandian dagoena, adibidez–. Eta hirugarrena, goi-mailako musika-irakaskuntzak irakasten dituzten kontserbatorioei edo akademiei, unibertsitate-lerruna aitortzen dieten herrialdeetakoak –hau da, Alemanian, Lituania, Letonian edo Estonian gertatzen den moduan–⁴⁶.

41. Zera dio gai honi buruz, hitzez hitz, Euskal Herriko Kontu Epaitegiak: “Zuzenbide pribatuko fundazioak bezalako erakundeek ez zaie administrazio publikoan jardura arautzen duen ondasun eta zerbitzuak kontratatzeke eta pertsonala kontratatzeke araua aplikatzen. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzak sortu duela, finantziak publikoak dela, Administrazioak bere gobernu-organismoak kontrolatzen dituela eta zerbitzu publiko bat eskaintzen duela kontuan izanda, Fundazioak, pertsonala kontratatzean berdintasun, meritu eta gaitasuneko printzipioak errespetatu behar ditu, bai eta ondasunak eta zerbitzuak kontratatzean publizitate- eta lehia-printzipioak ere” (ikus *Musikeneren Fundazio pribatuaren fiskalizazio-txostena*, II.1 iritzia, Legea betetzeari buruzkoa, 2004ko irailaren 30eko EHAA).
42. Alegia, <http://www.musikene.net> helbidean.
43. Ildo beretik, ikus EMBID IRUJO, A.k irakasle emerituaren figurari egiten dion aipamena, ondoko lanean: “Un siglo de legislación musical en España (y una alternativa para la organización de las enseñanzas artísticas en su grado superior”. In: *Revista de Administración Pública*, 153. zkia., 2000; 494. orrian aipatua.
44. Deklarazio horiek guztiak eskura daitezke, besteak beste, interneteko helbideotan: <http://www.mec.es>, <http://www.crue.org>
45. Ikus *Resolución del Parlamento Europeo sobre las universidades y la enseñanza superior en el espacio europeo del conocimiento* izenburua duen dokumentua [2001/2174(INI)], A5-0183/2002 zenbakiduna (behin betikoa). Aipaturiko Ebazpena Europar Batasunaren atarian eskura daiteke, Europako Parlamentuaren webgunean, <http://www.europarl.eu.int> interneteko helbidean, hain zuzen ere.
46. Europako goi-mailako musika-irakaskuntzen sistemei buruz, oro har, lanak ikus daitezke: AEC. *Overview by country of professional music training Systems in Europe*, 2004; eta *The Bologna Process in Higher Arts Education: an overview*, 2002 (bi lanak eskuragarri daude AECren webgunean, interneteko helbideotan: <http://www.aecinfo.org/bologna> eta <http://aec.cramgo.nl>). EURYDICE. *Organización de la estructura de la Enseñanza Superior en Europa 2003/2004. Tendencias nacionales en el marco del Proceso de Bolonia*, 2004 (aipaturiko lana Eurydicen webgunean eskura daiteke, <http://www.eurydice.org> interneteko helbidean, alegia). ZENBAIT EGILE (ed. J. De Groof, C. D Smet eta H. Penneman). *Art meets Law in Education (Yearbook of the European Association for Education and Policy)*, IV. alea (1999), Kluwer Law International, The Hague, London, Boston, 2001. Halaber, oraintsu aipaturiko Eurydicen interneteko helbidean, Europako hezkuntza-sistemei buruzko Eurydiceren datu-basea (EURYBASE) ikus daiteke. Baita ELIA erakundearen *European Guide to higher arts education* inforriko gunean ere (<http://www.artschools-europe.org> interneteko helbidean), gaiari buruzko informazio zabalara lor liteke.

Zuzenbide konparatuan ageri zaigun egoera honen aurrean beraz, harrigarriena ez da, unibertsitate-lerruna daukaten edo unibertsitate-fakultateetan integraturik dauden unibertsitate artistikoak, akademiak edo kontserbatorioak topatzea. Ez, ondokoak eragiten du harridura: goi-mailako musika-ikastetxeei, unibertsitate-lerrunik ez aitortzea, bertan eskura daitezkeen tituluen maila, hertsiki unibertsitate-titulu direnek ukan dutenaren baliokidea denean.

Goi-mailako musika-irakaskuntzen europar esparruan bada, halabeharrezkoa dirudi, konbergentzia prozesuak azkenean galdutuko duela, goi-mailako musika-ikastetxeak nahiz ikasketak unibertsitariotzat onartzea. Eta honetarako hainbat formula egon liteke –zuzenbide konparatuan gertatzen den legez–. Espainiako Gorte Nagusietan, ordea, gaiari buruz eztabaidatu denean, zera adostu da: autonomia erkidegoekin batera, goi-mailako musika-irakaskuntzak arautuko dituen lege espezifiko bat onartzeko premia dagoela⁴⁷. Hortaz, litekeena da, Parlamentuan, gisa horretako lege bati buruz inoiz eztabaidatzeari ekitea. Bien bitartean, ukaezina da, Boloniako Deklarazioaren xedeak Espainiako goi-mailako musika-irakaskuntzetara ere hedatzen direla. Eta, beraz, unibertsitate-mailako irakaskuntzarentzat finkatu diren helburu horiek lortzearen, goi-mailako musika-irakaskuntzak ere birmoldatu beharko direla.

47. Honetara, ikus bereziki 1996ko abenduaren 23ko Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala (BOCG), 89 zkia., VI. Legealdia; 9-10 orriak; 1999ko martxoaren 4ko BOCG, 388. zkia., VI. Legealdia; 8. orria; Diputatuen Kongresuko Batzarren Aldizkaria (DS), 2000ko ekainaren 14koa, VII. Legealdia, 30. zkia.; 481. orria; 2000ko abenduaren 21eko DS, VII. Legealdia, 133. zkia.; 3864. orria; eta, azkenik, 2004ko ekainaren 1eko DS, VIII. Legealdia, 39 zkia.; 8. orria.